

Kaixo lagun,

Gure haurrak ere badira ekimenetik Euskal Herriko eragile sozial, sindikal eta hezkuntza-komunitateari ekimen bateratu batean parte hartzeko deia egin nahi dizuegu.

Palestinako herriaren aurkako genozidioaren hirugarren urteurrenaren atarian, ezinbestekoa iruditzen zaigu Euskal Herriko hezkuntza-komunitateak ere bere ahotsa altxatzea eta elkartasuna adieraztea. Horretarako, urriaren 1ean Euskal Herriko ikastetxe guztietan kontzentrazioak egitea proposatzen dugu, «Euskal Herriko hezkuntza Palestinarekin» lelopean.

Kontzentrazio horien bidez, gainera, urriaren 3an Iruñean egingo den manifestaziora joateko deia zabaldu nahi dizuegu.

Ekimenaren barruan, gainera, kometak egiteko tailerrak antolatzea proposatzen dugu. Iruñeko urriaren 3ko manifestaziora kometak eramateko deia egin denez, ikastetxeetan eta bestelako espazioetan kometak egiteko tailerrak antolatzea animatzen zaituztegu. Erantsita, kometak egiteko jarraibideak bidaltzen dizkizuegu, tailerrak erraz antolatu ahal izateko. Egindako kometak, ondoren, urriaren 1eko kontzentrazioetan eta urriaren 3ko Iruñeko manifestazioan eraman ahal izango dira. Era berean, erantsita doakizue kontzentrazioetarako kartela eta mobilizazioa zabaltzekoa.

Horregatik, sindikatu eta eragile sozialei eskatzen dizuegu ekimenarekin bat egin eta honako deialdi hauek zabaltzeko:

Urriaren 1ean Euskal Herriko ikastetxeetan kontzentrazioak egiteko deia, «Euskal Herriko hezkuntza Palestinarekin» lelopean.

Urriaren 3an Iruñeko manifestaziora joateko deia.

Kometak egiteko tailerrak antolatzeko deia, ikastetxeetan zein bestelako espazioetan.

Bai urriaren 1eko kontzentrazioetara, bai urriaren 3ko Iruñeko manifestaziora, Gure haurrak ere badira ekimeneko kamisetekin joateko deia egitea. Gogorarazi nahi dizuegu kamisetak oraindik ere eskuragarri daudela. Kamisetarik ez dutenek online eros ditzakete Serigrafía.eus webgunearen bidez.

Ekimenaren berri zuen militante eta afiliatuen artean, sare sozialetan eta, bereziki, ikastetxe eta hezkuntza-komunitatearen artean zabaltzea.

Urriaren 1ean ikastetxeak elkartasun- eta aldarrikapen-gune bihurtu nahi ditugu, eta urriaren 3an Iruñeko kaleetan ere ahotsa altxatu!

Euskal Herriko hezkuntza Palestinarekin!

Eskerrik asko ekimen honekin bat egiteagatik eta deialdiak zabaltzen laguntzeagatik.

Gure haurrak ere badira

